



## TXIRRINDULARIAK

Txirrindulariak ([www.txirrindulariak.jimdo.com](http://www.txirrindulariak.jimdo.com)) aurkezten dizuet, Gipuzkoako txirrindularitzaren erreferentzia den web-orria. Hemen 100 proba baino gehiagoren bideo eta argazkiak aurkituko ahal dituzu, gehienak Gipuzkoa edo Euskal Herrian zehar ospatuta, modalitate eta maila askoren probatan egoten naizelako, adibidez, itzuli handi baten esperientzia bizitzeko Frantziako Tourra edo Espainiako Itzulia bezala Alpetaara eta Andaluziara joan zen Txirrindulariak.

Proiektua 2010. urtean sortu zen txirrindularitzaren telebistan ikusten ez diren aldeak erakusteko. Hortik aurrera Txirrindulariak 100 bideo baino gehiago ekoiztu ditu 3 urte t´erdin. Baina ez bakarrik zenbat bideo egin ditugu, gure kalitatearen eta lan onaren erakusgarria da. Bideoen irudi kalitatea handitu egin da (2010-an 240p -koa zen eta 2013-an 720p -koa, hau da HD), informazioaren trataera bideoeta eta nola transmititzen da eta xehetasun txiki ugari proiektu hau handitzea egiten dute.

Txirrindulariak bereizten duen gauzen bat, txirrindulari (juniorra 2014 eta 2015 urteetan) bat sortu zuela. Bai, txirrindulari bat, hori esan nahi du badakidala nola mugitzen dira lasterketak, sentitzen eta bizitzen ditudalako. Baina hau ez du esan nahi ni lasterketa dudanean Txirrindulariak geldirik dagoela, guztiz kontrakoa, kamera subjektibo bat izanik (GoPro HD Hero 960) talde autor baten jarrita lasterketak ikusteko era berria eta ikaragarria emanten du.

Hasieratik, Txirrindulariak -en aktibitatearen gunea Bidasoa aldea izan da. Horregatik eta Irungo T. E. -aren laguntzailea naizelako (eta beraien txirrindulari gaztea) Bidasoaldearen proba guztietan egoten saiatzen naiz.

Gure ikusleei ailegatzeko forma ere aldatu da. Tuentin, Facebooken, Twitterren... kontuak eta gure laguntzaileak errazago egiten dute ikusleei eta jende gehiagori ailegatzea. Horrela bideoak jende gehiagori ailegatzeaz gain, lasterketa txikientzak eta txirrindulari gazteentzat laguntza handia da. Lehenengo haiek ez dutelako ezer ordaintzen bideoengatik eta bigarrenez gure bideoei esker mundu guztira ailegatu ahal direlako.

Badakizu, Txirrindulariak maila guztien txirrindularitza ikusteko erreferentzia web gunea da.

JORGE GARCIA - TXIRRINDULARIAK